

NAZIO BATUEN ERAKUNDEAREN GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK ETA GIZA ESKUBIDEEN MEKANISMOAK *ikuspegi feminista batetik*

GIH, CAT & CRPD

Women's Major Group

Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendak, Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) izenez ere ezagutzen denak, mundu mailako 17 helburu jasotzen ditu, elkarrekin oso lotuak eta berariaz diseinatuak "ekintza plan bat aurrera eramateko eta guztientzako etorkizun hobea eta iraunkorragoa lortzeko". Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak onartu zuen 2015ean, eta asmoa da helburuak 2030erako betetzea.

Giza eskubideetako prozesuek lotura argiak dituzte Garapen Iraunkorrerako Helburuen barneko garapen-prozesuekin, bai eta ingurumen eta klimaren arloetako prozesuekin ere.

Garapena eta pobrezia egotea edo ez egotea oso lotuta dago ustelkeriarekin eta independentzia judizialarekin, torturekin, bai eta osasun publikoa, zerbitzuak eta azpiegiturak izateko aukerarekin ere, funtsezkoak baitira pertsona guztien eskubideak lortzeko, desgaitasunak dituzten pertsonak barnean hartuta.

ZER DIRA GIH-AK?

ZEIN DA GIH-EN ETA CAT-EN ETA CRPD-REN ARTEKO LOTURA ETA INTERAKZIOA?

ZER DA CAT?

Torturaren eta bestelako tratu edo zigor krudel, gizagabe edo iraingarrien aurkako Konbentzioa (CAT, [ingelesez](#)) giza eskubideen nazioarteko hitzarmen bat da, NBEren Batzar Nagusiak ebazpen bidez onartua 1884ko abenduak; 1987ko ekainaren 26an sartu zen indarrean, eta orain arte 171 gobernuak berretsi dute. Konbentzioaren helburua da tortura eta bestelako tratu edo zigor krudel, gizagabe edo iraingarriak prebenitzea mundu osoan. CAT berretsi duten gobernuak aldian-aldian txostenak aurkeztu behar dizkiote Torturaren aurkako Batzordeari, normalean lau urtean behin. Konbentzioak badu [Protokolo Fakultatibo](#) bat ere, eta hor, [Prebentziarako Azpibatzerdea \(SPT\)](#) eratzea xedatzen da, helburu jakin bat betetzeko: kide diren estatuetan askatasunaz gabetutako pertsonak atxikitzeko lekuak bisitatzea. Protokolo Fakultatiboaren arabera, gainera, estatu kideek mekanismo nazional independenteak ezarri beharko dituzte torturaren prebentziarako, eta mekanismo horiek ere atxiloteta-lekuak aztertzeke ahalmena izango dute.

ZER DA CDPD?

[Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioa \(CRPD, \[ingelesez\]\(#\)\)](#) giza eskubideen nazioarteko hitzarmen bat da, NBEren Batzar Nagusiaren ebazpen bidez onartua 2006ko abenduak; 2008ko maiatzean sartu zen indarrean eta orain arte 182 estatuk berretsi dute.

Hitzarmenak aldatu egin du desgaitasunak dituzten pertsonen gaineko ikuspegia, ez baititu hartzen karitatearen, tratamendu medikoen eta gizarte-babesaren "objektu" gisa, baizik eta eskubidedun "subjektu" gisa, gai diren gizarteko kide aktibo izateko, beren eskubideak aldarrikatzeko eta beren bizitzarako erabakiak hartzeko, baimen aske eta informatuan oinarrituta.

CRPD berretsi duten gobernuak aldian-aldian txostenak aurkeztu behar dizkiote **Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Batzordeari**, normalean lau urtean behin. Konbentzioak badu [Protokolo Fakultatibo](#) bat ere, eta horren arabera, protokoloarekin bat egin duten herrialdeetako norbanakoek edo norbanako-taldeek –edo haien izenean beste batzuek– komunikazioak aurkezten badituzte Konbentzioaren xedapenen urraketa baten biktima direla adieraziz, Batzordeak komunikazio horiek aztertu eta aintzat hartuko ditu.





NORA JO DEZAKEZU?

MUGIMENDUEN AHOLKUAK

Hitzarmenetako organo guztietatik, Aldizkako Azterketa Unibertsalak eta Prozedura Bereziek giza eskubideen ekosistema oso bat osatzen dute, eta elkarren ondoan aritzen dira elkarlanean eta interakzioan. Txosten bat idazten baduzu batzorde zehatz batentzat, pentsa ezazu txosten hori bera erabil dezakezula beste batzorde edo entitate batean aurkezteko, eta txostenaren aurkezpenean, argitu ezazu berez honako edo halako prozesu edo batzordetarako egin zela, baina hor jasotzen den informazioa garrantzitsua dela azterketa horretarako.

GIHen Borondatezko Azterketa Nazionalak (BAN), batez ere toki- eta nazio-mailan, aukera baliotsuak eskaini ditzake herrialde bateko gizarte zibileko talde eta erakundeentzat. Izan ere, bakoitza bere kasa eta bere agendaren arabera ari bada lanean gobernuko departamentu eta ministerioekin, nor bere aktibismoaren eremuan, BANren prozesuen bidez elkartu daitezke, eta kausa komun bat aurkitu eta elkarri lagundu.

Emakumeen Talde Nagusiaren eginkizunetako bat da gizarte zibileko erakundeek –giza eskubideen alde egiten dutenek, garapen iraunkorrean oinarrituta eta arreta emakumeen giza eskubideetan jarrita– NBEen parte-hartzea eta beren ekarpena egitea erraztea.

CAT

Torturaren aurkako Mundu Erakundea (TAME) torturaren aurka borrokan ari diren GKE-en nazioarteko koalizio bat da. Kide diren erakundeekin batera lan egiten du, tortura eta tratu txarrak amaitzeko, biktimei laguntzeko eta aktibisten giza eskubideak babesteko, CATen batzordearekin lanean aritzen diren erakundeek laguntza emanez, CAT konbentzioa tokian-tokian eta nazioetan betetzen dela bermatuz, tokian tokiko misioak eramanez aurrera, eta norbanakoen kasuak eramanez nazioiko, eskualdeko nahiz nazioarteko organoetara.

CAT

Giza Eskubideen Institutu Daniarraren **GIH-Giza Eskubideen Datuen esploratzailea**, Torturaren aurkako Batzordeak emandako gomendio guztiak betetzen dituena, lotuta dago 2030 Agendaren helburu eta helmugekin.

Hainbat **gidaliburu praktikoa, tresna eta baliabide**, CAT berresteko eta inplementatzeko ahaleginak sustatzen dituztenak, aholkularitza teknikoak eskainiz; besteak beste, adibidetzat jartzen dute hainbat estatuk nola aldatu dituzten beren legeak, politikak, prozedurak eta estandar praktikoa nazionalak, eta nola heldu dieten erronkei, justizia-sistema eraginkor eta funtzional bat lortzeko, oinarritutak legeak, portaera-kodeak, berrikuntza, gardentasuna eta erantzukizuna hartuta.

Torturaren aurkako Batzordeari buruzko **TAMERen webgunea**: Batzordearen osaera, eginkizunak eta lan-saioak, bai eta gizarte zibileko erakundeek prozesuan nola parte har dezakeen ere.

CAT

GIHen barnean, tortura hitza behin bakarrik aipatzen da, 16. helburuaren 2. helmugan, hark ezartzen baitu “**umeen aurkako abusua, esplotazioa, salerosketa eta indarkeria eta tortura modu guztiak amaitzea**”. Hala ere, CATen 1. artikuluan jasotzen den torturaren definizioan, barnean sartzen dira indarkeria-mota guztiak eta torturatutak jo daitezkeen jardunbide guztiak. 16. helburuaren 1. helmugak ere aipatzen du “**indarkeria-modu guztiak eta hark eragindako heriotza-tasak modu nabarmenean gutxitzea mundu osoan**”, eta beste hainbat helburu eta helmuga ere lotzen dira CATekin, esaterako 5. helburuaren 2. helmuga: “**emakumeen eta neskatuen aurkako indarkeria-modu guztiak deuseztatzea**”; edo 5. helburuaren 3. helmuga: “**jardunbide kaltegarri guztiak deuseztatzea, besteak beste umeen ezkontza goiztiar eta derrigortua eta emakumezkoen mutilazio genitala**”

CRPD

Desgaitasunaren Nazioarteko Aliantza (IDA, ingelesez) desgaitasuna duten pertsonen mundu- eta eskualde-mailako 14 erakunderen aliantza da. Desgaitasuna duten pertsonen berbitzuek eskaintzen dizkieten erakundeen aldean, IDA badu ezaugarri bereizgarri bat: desgaitasuna duten pertsonen ordezkari diren edo ordezkari gisa halako pertsonak dituzten erakundeak koordinatzeko erakundea da.

KONTUAN HARTU BEHARREKO TRESNAK

CRPD

Sustapenerako Nazioarteko Elkartek aurkezpenerako egindako tresna-multzoa. 2030 Agendari buruzko informazioa aurkeztu, eta adierazten du nola lotzen den NBERen Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioarekin (CRPD NBE); gainera, aztertzen da desgaitasuna duten pertsonen nola eragin dezaketen eta nola parte har dezaketen eskubide horiek lortzeko prozesuan.

GIH-CRPD baliabideen multzoa, NBERen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoak egina. Hainbat gidaliburu, prestakuntzarako materialak, eta beste hainbat baliabide ditu, erakusteko zer ekintza nagusi egin behar diren desgaitasunak dituzten pertsonen aldeko helburuak lortzeko politikak garatzeko.

Desgaitasuna duten Pertsonen Giza Eskubideei buruzko Eskuliburua. Honako hauek azaltzen ditu: desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioa giza eskubideei buruzko beste hitzarmen garrantzitsuen testuinguruan, eta nola indartu daitekeen giza eskubideen inguruko diskurtso nagusian duen lekua.

CRPD

GIHetatik, 16. helburuaren 6. helmugak aipatzen du gobernuen zeregina dela “**instituzio eraginkor eta gardenak eratzea, kontuak emango dituztenak**”. GIHek, bai 2030 Agendan zehar eta bai gainerako helburuetan eta helmugetan zehar, berekin dakarte desgaitasunak dituzten pertsonen rola eta parte-hartzea funtsezkoak izatea, baina, hala ere, ez dago ez helmugarik, ez berariazko adierazlerik, modu esplizituan halakorik ezartzen duenik. CRPD konbentzioak, berriz, 4., 29., eta 33. artikuluetan eta beste artikuluetan, deskribatzen du zer-nolako antolakuntza instituzionala behar den politikak formulatzen direnean desgaitasuna aintzat har dadin, arlo guztietan eta maila guztietan, eta gobernantza ona izan dadin, desgaitasuna duten pertsonentzat inklusiboa.